

PIARRES LAFITTE ETA ANTZERKIA

Xipri Arbelbide

Bolikostan nintzelarik Abidjango inguruetan ikusi nuen taula zahar eta to-laz eginikako garage edo taller gaixo bat. Atean tindatua zuen “marka guzie-tan espezializta”.

Ez dakit horrelakorik idatziko zuen Piarres Lafittek ere bere atean: Bai-nan zertaz ez dizkiote argitasun eta aholku eskatu batzuk eta bestek? Grama-tika, hiztegia, olerkia, kantua, ipuina, kasetaritz... Zertaz ez du idatzi? Gra-matika, hiztegi, kantu bilduma, antzerki, erlisione liburu....

Bere antzerki ezagunenak aipatuko ditugu beraz eta euskaldunena den an-tzerkiaz, Xiberoko pastoralaz egin duen kritika.

IDATZI DITUEN ANTZERKIAK

Berak idatzi ditu antzerkiak. 1983an omenalditzat Euskaltzaindiak atera zion “Iker 2” bildumako bibliografian 15 kondatu ditugu, bainan bosten tex-tuak baizik ez ditugu aurkitu: Sarea, Gonsalve, Arroltzea, Orratza eta Egiaz-ko argia. Denak *Gure Herria* hilabetekarian agertuak dira.

Sarea

1950ko urtarrileko *Gure Herrian* agertu zen “Sarea”. Oso laburra, nahiz sei zati dauzkan, kantu batekin zati bakotxa aintzin.

Lau jokolari: irakurlea, bere semearekin eta alabak (gaizki) egin sare ba-tekin arrantzara doana aita. Semea urera erortzen da sarearen barnera eta hau urraturik, itsasoan hondatzen eta itotzen. Ebanjelioko “arrainen” biltzeko sare egitera gomitatua da bururatzean, alaba.

Hona zer erraten duen berak antzerki horretaz:

Teatroak erroak egiten ditu Eskual Herrian, bainan erakusgeiak xuhur di-tugu. Ditugun gehienak, irri egitekoak dira. Huna batto Norvegeko kantu ba-tetik aterai. Ez da arras komedia bezela eman behar: hitz gutirekilakoa da,

eta jestu doi doia aski du, bainan heiek artoski egin bitzate jokatzailerek; Jauntzi berezirik gabe eta sarerik gabe eman arazi dugu, eta berdin hunkigarri atzeman dute aditzaleek, ez badute ere hunkigarriago kausitu. Haatik teatro gibelean kantari moltxo bat bagenuen, hitzik gabe, ahapeka bezela, noizean behin beren aire ederrez ikusgarria apaintzen zaukutena.

Et du erraten noiz eta non eman zuten. Bainan antzerkiak erroak egiten ari zituela Euskal Herrian baitio, jakin behar da garai haietan antzerki talde asko bazela Iparraldean Arberatz, Eiheralarre, Hazparne, Heleta, Irisarri, Larkarra, Mugerre, Urruña...

Gonzalve edo Ostatu betea

Gure Herrian agertua 1969an, urriko alean. 10 agerraldi labur dauzka. Antzerki honen historia oso interesantea da. 1890an baziren jada udatiarrak Donibane Lohizunen. Horieta, Elimir Bourges idazlea, Parisko Goncourt akademiakoa. Hemen zegoelarik, mugaren bi aldeetan ibilki ziren antzerkilari Euskaldun batzu pasatu ziren Donibanen eta gure idazlea, hoiei so egon. Euskaraz ari eta ez baitzuen ezer ulertzen, mugazain Euskaldun bat hartu zuen berekin eta honek egin zion itzulpena.

Lehenik drama bat eman zuten, ikaragarria: Napoleon inperadoreak Espainiaren kontra egin zuen gerlako. Ondotik irri egiteko antzerki bat. Bourges jaunak notak hartu zituen idatziz eta geroago, antzerki bera arramoldatu zuen. Lafittek zioen:

Iduritu zaiku, eskuararik frantsesera itzuli zutenaz geroz, merexi zuela frantsesetik eskuarala berriz itzultzea.

Nahiagoko genuen, 1890eko euskal komedia bera ager arazi, bainan ez dugu orai arte nihun ere hatxeman haren kopiarik, ez eta komedient euskaldunen hatzik ere.

Elémir Bourges-en arabera, Gonzalve antzerki horrek teatro español zahharreko "entremés" hoberenen eite handia badu. Baditake konplimendu txarregarrik.

Antzerki honek, lau jokolari dauzka: bi bidaiari, ostalertsu eta honen sehia. Ostatu ganbera ttipi batetan pasatzen da, hor daudelarik bi ohe, zenbeit alki, mahain bat maingua, mahainaren gainean ikuzteko ontzia pitxer mando batekin, argiño bat ikaran, ur benedikatu ontzia dilindan. Logela hobea nahia-goko izanen zuen gizon bat oheratzekotan zegoelarik hor, sehi gaztea heldu zaio bigarren ohearen eskatzera ez delakotz besterik gelditzen. Ustez eta nextakxak beretzat nahi duen ohe hori, baia ematen dio eta hona non gizon bizardun bat sartzen den. Antzerkia bururatzean gizona ohartzen da, bizardun hori etxetik ihesi joana zitzaion emaztea duela!

Arroltzeak

1951n agertua *Gure Herrian*, urtarileko alean. Agerraldi bakarreko antzerki hau ere laburra da. Merkatuan pasatzen da, arroltze saltzaile baten eta eroslearen artean. Arroltzeak merke arazi ondoan ez freskoak, baina ustelak nahi dituela erraiten du erosleak. Saltzaileak ateratzen dizkio hogoi bat, bi dozena nahi dituelarik. Ustel guziak bazterturik besteak freskoak direla segur eta hauek hartzen ditu orduan erosleak.

Orratza

1955ean agertua da *Gure Herrian*, martxoko alean. Hiru zatitako antzerki hau ixtorio xaharretarik ateraia du. Bi etxekandere, sehi bat, mutil bat, mutil tipi bat eta jaun mera agertzen dira antzerkian barna.

Etxekandereak bere orratza galdurik etxe guzia airean dago. Anderea auzoarekin hasarretzen da, mutil tipiak erranik honek diola ebatsi bere orratza. Jaun mera dator bi auzoen arteko auzia xuritzera, delako orratza alki baten gainean aurkitzen dutelarik.

Antzerki honen berezitasun bat “xu”ka, Garaziko alokutibo moldean mintzo zaiola mutila etxekandereari.

Egiazko argia

1927an agertua *Gure Herrian*, martxoko eta ondoko hiru aleetan. Antzerki honek badu interes berezi bat Hegoalderako. Francok fusilatu zuen Markiegi eibartar apezak itzuli zuen Gipuzkoako euskarara. *Antzertiren* 14-15. zenbakian agertu zen. Eibartarrek eman zuten antzerkia apezaren omenalditan.

Hona nola aurkezten duen Lafittek berak *Gure Herria* aldizkarian.

Lantto hunen geia ederrenetarik zen, Harosteguy Hazparneko jaun bikarioak asmatua.

Izen horrek berak, ezagutzen duten guziera gogorat emanen deie bihotz oneko apez kartsu eta jakintsun baten begitarte gozoa.

Harek bururaturik, segur sail hunek bertze eskerrik baluke bazterretan. Ondikotz, astirik ez izanez, bere xedea beharri xilorat erran zakon, bere bezain nere adixkide bati; honek ninduen bildu, alegia deus ez, geiaren hartzerat, gogoan luzaz erabiltzerat, azkenean obratzerat.

Orhoit zirea Leon, seminarioko lorio nasaiez? Mintza balite, balukete zer sala: hasteko, afal ondoko gu bien lasterrak, izar xurien argipean, gure eskuarazko lanttoak hain beroki aipatzen ginituelarik.

Hots, nolazpait, 1922ko agorrilaren bortzean azken lerroa eman nakon huni.

Behar ote zen argitaratu? Alde guzietarik so, lehenbizian umea ez naukan batere itsusia. Luzarat haatik itzal zombaiti ohartu, gero eta gehiago kautu, ondarrerat hastean maite bezain itsutuki hastio nuen.

Asteak joan, asteak jin, adixkideak ere jin zitzaizkitan: "Ea, ea, zertan duzun Egiazko Argia"? - Hila. - Zer duzu, erre? - Ez, ez, lo... - Amen otoi! Emaguzu bada guri pizterat edo iratzartzerat!"

Igorri zautaten beraz Senpereko airearen hartzerat. Ai ei ama! aire ona zuen etxerakoan! Barberak alabainan etzakon folsua sendo ezagutu. Harenak beti eta bertze beltzarenak ere erran zazkon ezti-etzia.

Geroztik lo dago nere lanttoa bigarren aldikotz. Bainan egun, nihaurek egiten ahalko oihu: "Asa! jeiki hadi! Oheak jaten ari hau. Ateratzea on dukek beharbada."

Horra zer funtsean heldu zaitzun nere xori zaharra. Xixtu ala jauntzi, deus onik aurkitzen badakozu, irakurle maitea, otoi! nereekin doatzila zure esker hoberenak Harosteguy, Leon eta bereziki Barbier jaun apezan ganat, maiz bide onean, sustut makurrean gibelatu nuelakotz. Hutsak aldiz atzemanen dituzularik, berehala nitaz oroit zite eta Agur Maria bat erradazu, onerat itzul nadin lehen bai lehen.

Horra antzerkiaren historia. Beste norbeitek, Harosteguy apezak asma-tua, Lafitte idatzia, berak orraztatua lehenik, lagunek akulaturik, eta bigarren aldi batez, Barbier Senpereko erretor idazleak. Lerro horien artetik ikusten dugu Lafitte ez zela bere idazkiak lehen jinean botatzen dituzten haietarik. Bere umea nahi zuen ederra eta horretarako, behin eta berriz, lantzen zuen.

Hamalau-hemezortziko gerla garaietako familia baten historia da. Piarres gerlara doa etxen utzirik aita, emaztea eta semea. Anaia, desertur joana da Elizondora. Gerla bururatu eta Piarres etxeratzen delarik, itsu, alargun eta sinesgabea da. Baina sinestea berriz heldu zaio semeak egiten duelarik lehen kominionea.

Hau da irakurtu ditugun antzerkietan hoberena, nahiz idatzi duen lehena. "Sarea"k bezala gai serio bat tratatzen du, beste hiruak irri egitekoak direlarik. Bostetan, testuak saltzen du idazlea apeza dela, otoitz labur baten bidez edo antzerkiaren funtsean berean.

Piarres Lafitte-ri omenaldia, Iker bilduma, 2. liburukia, Euskalzaindiak agertu omenaldi liburuan, beste hamar bat antzerki aipu da, baina ez dugu

haien testurik aurkitu ahal izan. Dena den, hona haien tituluak, norbeitek xantza gehiago balu bere ikerketetan. *Maritxu, San Frantses Xabier, Amerikanoa, Mirikuan, Oiharzunak, Ilargia, Hilbiziaren ordenua, Eguberri, Xalbaten merxika ondoak*, eta bat frantsesez: *A l'écoute de notre âme* (1).

XIBEROKO PASTORALAK

Berak antzerkiak idatzi baditu, bestenak ere ikusi ditu eta kritika bat egin behin baino gehiagotan, izan dadin molde klasikoko antzerkientzat ala Xiberoko pastoralentzat. Hauetaz dugu gehienik lan aurkitu eta nola Pastoralaren Euskal Herriko antzerki berezia, kritika hauei eman diegu begirada bat.

Noiz sartu diren Xiberuan? Hona zer erraten duen *Santa Garazi*, Junes Casenaven pastoralaren aintzin solasean.

Iduriz, Lepantoko itsas gudua baino lehenago. Gudu hortan (1571) Turkoak garaituak izan ziren, Europako bidea zerratzen zaielarik. Ordu arte, Turkoen beldurrez ikaran zauden bazterrak eta girixtinoek ez zuten kasik etsai handiagorik amesten. Mendebal huntan liburu eta kantuek basa huts, sordeis eta higuingarritzat zauzkaten.

Aldiz, Lepantoko garaitzatik landa, Frantziako eta Italiako literaturetan, Turkoen alderako izialdura ez zen bakarrik eztitu, bainan arras itsabasi. (...)

Ziberoako pastoraletan, Turkak arrunt gaitzetsiak dira, etsai gaixtoenen lerroan ekarriak, aspaldiko denboretan bezela. Horrek, gure ustez, erakusten du Euskaldunek beren lehenbiziko maileguak berantenez egin zituztela XVI. mende erditsutan, non ez ziren geroxago "mystères" xaharrez baliatu (2).

Aintzin solas horretan frango xehetasun ematen du pastoralaren legeetaz. Nondik ezagutzen zituen? Luzaz apezik ez da agertu pastoraletan! Galde horri erantzuna emanen diogu Satanak aipatzean.

Aldatuz doan ikusmoldea

Santa Garazi 1976koa zen, baina, 1922an idatzia zuen bere lehen euskarazko artikulua, funtsezko gai batetaz, eta hain zuzen, pastoralaz: "Pastoralak". "Maitena", Decrepten lehen operak izan arrakasta ikusi eta zenbeitek baitzioten pastoralak bazterturik, operara pasatu behar zela, Lafittek ez zuen bide hori hartu nahi.

(1) *Iker* 2, 70 orrialdean.

(2) *Santa Garazi*, 10 or.

Pastoralak atxik eta usu eman erakusterat... Opera ainitz ere molda, ofizioa agerlari aski atxemaiten ahal baduzue (Guk dugu azpimarratzen). *Baina herriz otoizten zituztet, ez pastoralak utz opera direlakoan estakuruan. Behazue hola eginez, ipurdia bi alkien erdian, eror.*

Lafittek uste zuen gure Iparralde ttipian ez zela aurkituko behar zen mailako jokolari aski operak emateko. Badaezpada, pastoraletan jarraiki behar zela... deusik gabe ez gelditzeko. Hots, ez zuen eskuko xoria utzi nahi, zerukoaren menturan, atsotitzak dioen bezela. Bainan ez daiteke erran lerro horiek irakurtu eta hainbateko sinestea bazuenik pastoraletan. Beste bide bat proposatzen zuen:

Egia erran hirugarren alki bat guk nahiago ginuke: teatro bat, ez 'opera', ez 'pastorala', bien arteko zerbait; egungo eguneko zatikaduren (ageraldilactes, gertamen/scènes) mugarrietan ezarria; mintzoa burutik buru da-riola; kanturik gabe, edo Eskual Herrian ohi den aire batzuekin, sifoasa soberakinik gabe.

Baina 1976an, mende erdi bat berantago, besterik dio: Larzabal, Monzon, Labayen, Landartek egiten duten bezalako antzerki modernoari, bai. Pastoralak berriak bai, zaharrak baztertu gabe. Baina pastoralak modernoari, ez.

Ikusi baitzuen *Orreaga* Piarres Larzabalen lapurtar pastoralak, honen ondorengoa erran zuen ez zela Xiberokoaren kopia xoilak. Hura gogoan, gai herrikoiki eta ikusgarriak hartu dituztela, behar den libertatearekin. Eta galde egiten zuen lehen urrats horrek ondorengorik izanen ote zuen (3). Orain erran dezakegu ezetz Lapurdira doakionaz. Baina horretan gelditu.

Monzon, Larzabal, Landart, Labayen, Arestiren antzerkia gustatzen zaio. *Baitezpada modernoa egin nahi bada xiberotarrez, hartu bide bera, bainan otoi, ez egin pseudopastoralik* (4).

Lehenago ere izanak ziren saiakerak bide beretik. *Duvoisin kapitainak eta Hiribarren apezak egin zituzten lapurtarrez Marie de Navarre eta La guerre basque, bainan ez ziren egiazko pastoralak. Clément d'Andureinek, Justin de Menditte apezak lagun, izkiriatu zuen Uskaldunak Ibañetan, bainan ohiko legeri jarraiki gabe* (5).

Bide beretik doa menturaz Pastoralak bat oso modernoa egin duen Pierre Paul Berzaitz Muskildiarra, Elkanoren semeak eta ...ikusgarriekin. Ez ditugu pastoralak baztertu Lafittek 1922an aipatu hirugarren bidea hartzeko, baina hiru antzerki moietarekin gaudela erran dezakegu: betiko pastoralak, Europako

(3) *BMB* 1964, 86 or.

(4) *SLAB* 1976, 538 or.

(5) *Santa Garazi*, 15 or.

antzerki klasikoa eta, opera eta pastoralaren artean dagoen beste ikusgarri mota bat.

Piarresek beti segitu du pastoralari interesatzen, baina ez du gehiago 1922an proposatu hirugarren biderik aipatu. Aldiz, askotan eman du bere ikusmoldea ikusia zuenaz, betiko pastorala nola hobetu erranez.

Ikusiko dugu lege zaharrei jarraitzearen alde zela eta denbora berean aldaketak onartzen, bai eta eskatzen.

Satanak

Etzahun Iruri arte, pastorala gutiz gehienen gaia, edo Frantziako historia edo erlisionetik hartua zen: biblia, saindu, kurutzada... Bizkitartean aspaldi zuen apez bihi bat ez zela agertzen pastoraletan. Gehiago dena pastoralen etsai amorratuak ziren. Hérellek dio, XX. mende hastapenean, zenbeitek prediku alkitik kondenatzen zituztela. Inchauspe kalonje euskaltzale suharrak parte hartu baitzuen Napoleon Bonapartekin *Nabuchodosor* pastoralaren antolaketan, zenbeitek atera zuten “framazona” zela! (6).

Lafittek berak kondatzen zuen nola pastorala bere herrian eman zuten batez, jaun erretora elizan egon zen otoitzean, herritarrek pastoralen zeuden denbora osoan.

Beste herri batetan bere xantreari kominiatzea debekatu ziola bigarren bategatik, pastoraletan parte hartu zuelakotz. Zergatik ote ziren hoin aihar pastoraletari?

Piarresek erraten digu. Satanak badira pastoraletan. Hamalauko gerla ondoan zazpi, berdin hamar ordu irauten baitzuen pastoralak laburtzeko hona zer proposatzen zuen:

Labur bide bat liteke sataneria guziaren edekitzea, hori bai. Satanak denbora sobera deramate jauzika eta ditxoka, dabiltzan gertakariekin deus ikustekorik ez duten dantza eta tortiko batzutan. Ara berez ezin aipatzeko harrokeria eta lizunkeria moltzo bat liteke gutiago. Ezen satanek derabilzkiten solasak, arduran izigarriak dira likitsak. Robert le Diable entzun dutenak oroit ditezke nola lehenbiziko hitzetan beretan, “aintzin pedeikuaren” ondotik, Galtxagorri eta kidekoak zieten ahalgegarriki mintzo mutiko-neskato behatzailerei. Ez niz batere harritzen “pastoralen” etsai jartzen baitira askotan apezak. Maiz badute zeren (7).

(6) *Gure Herria* 1922, 314 or.

(7) *Gure Herria* 1922, 574 or.

Lerro horietan ikusten dugu zer zuten partida apezek: Satanen ateraldi lizunak. Ez uste izan 20. mende hastapeneko apezkeriak direnik horiek. Eskola publikoko irakasle zen Herellek berak aitortzen zuen Satanen ateraldiak ez zirela bakarrik 'larriak', baina oso oso lizunak (8).

Uskaldunak Ibañetan pastoralaren aintzin solasean garbiki errana da, emana izateko baimena izanen zuela, Satanak mutu egotekotan, dantzaz besterik ez egitekotan (9). 1908an Donibane Lohizuneko "Fêtes de la Tradition Basque" aste kulturalean eman baitzuten "Abraham", apez batek idatzia, Satanek ez zuten ahorririk idekitzen (10) (GH21/317) Lafittek ere bide bera proposatzen zuen 1922an.

Bazuten beste arrangurarik ere apezek. Igandearekin ematen zen pastorala eta egun guzira irauten zuen: eliza erdi hutsa zeukaten igande horretan! (11).

Bainan itzul gaiten Piarresen ganat. Satanak izan ala ez, mutu ala mihi-luze, Piarres ibiltzen zen pastoraletan. Lehena Domomintxinen ikusia zuen; It-horrotzen bizi zelarik, 1910 irian, 9 urte baizik ez zituelarik: *St Louis roi de France* (12).

Apezgai gaztea baizik ez zelarik oraino *Robert le Diable* pastorala ikusia zuen. Etxeber Mauleko apez nagusiak zion jakin arazi pastorala eder bat izan beharra zela, damu zela ez ikustea (13).

Piarres joan zen eta hari kontre beste apez batzu ere. 1922an idatzi artikulua hortarik ikusten dugu, 20-21 urteko apezgai gazteak hautsi zuela apezaren tabua bere sotana beltza soinean. Artikulu berean erraten du *Abraham* ikusia duela (14) eta ematen dituen xehetasunetarik badirudi *Santa Helena* ere bai (15).

Hortik harat, gutiz gehienak ikusiko ditu eta batzutan bere oharpenak idatziz emanen, *HERRIA, GURE HERRIA, SOCIÉTÉ DES SCIENCES, LETTRES ET ARTS DE BAYONNE* eta *BULLETIN DU MUSÉE BASQUE* aldizkarietan.

Satanek ez zutela gehiago beren lana egiten. Beren solas lizunak zirela eta errejentek ez ote zituzten ixilik egon arazi nahiago izan. *Jeanne d'Arc* pastorala ikusi eta idatzi zuen: "Oso ongi dantzatu dute, bainan gaiaz kango zeuden." Hona haren proposamena: *Pasarte larri horiek moztuz, beren betiko papera ematen ahal zaie. Eman behar zaie* (16).

(8) *Gure Herria* 1921, 315 or.

(9) *Gure Herria* 1921, 315 or.

(10) *Gure Herria* 1921, 317 or.

(11) *Gure Herria* 1921, 315 or.

(12) *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 1876, 536 or.

(13) Xipri Arbelbide

(14) *Gure Herria* 1922, 577 or.

(15) *Gure Herria* 1922, 576 or.

(16) *Gure Herria* 1952, 157 or.

Ez die gehiago ixilik egotea eskatzen. Satanak kitzikatzale izatea nahi du eta ez bakarrik dantzari. Satanak hor izan behar dutela, munduan nahaskeriak sortzera deliberatuak. Zenbeit pastoraletan arrunt mututuak zirela, dantzari baik ez mugatuz. *Jeanne d'Arc* pastorala ikusi eta idazten zuen: *Biziki ederki dantzatu dute, bainan osoki gaiz kanpo zeuden... (...) Eskutan daukat St Julien pastoralaren testoa. Sekulan ez dira zilo bat tapatzeko agertzen. Beti ongiaren kontra borrokatzeko edo egiaren kontra, edo Jainkoaren kontra. Eta ez uste izan horretan mugatzen zirela, ez zutela dantzatzen* (17).

1963an Gotañen *Santxo Azkarra* ikusi eta *HERRIA* astekarian idazten zuen.

Pastorala xaharretan, Satanek bazituzten hiru kargu: dantzari ziren, debru eta jostatzaile.

Oraiko Satanak dantzari onak daude: zaloin eta zalu, fridak eta uso hegalak egundaino bezen xotilki baderamazate, eta jendea ez da asetzen heieri soz. Pastoralako pasarteak ezin alegerakiago pikatzen dituzte, begiak eta beharriak pausatzen dituztela. Hortan ez da erraitekori.

Debru ofizioa ez dute hain ontsa betetzen aspaldi huntan.

"Santxo Azkarra" pastoralan doi doia bizpahiru "breset" eman dituzte haste-hastean, erranez bazterrak nahasiko zituztela, bainan hartan fini! Gero turko hilak ehortzi dituzte eta heien debrukeria guziak ez du ukan bertze ondoriorik.

Gure iduriko Satanek behar lukete parte handiagoa hartu teatroan iragaiten diren gora beheretan.

Heiek beharko zuketan Maritxu-ren amentsa sustatu; haiek amodioa piztu Santxo Azkarraren bihotzean, heiek Pedro zaharra hasarretzerat akulatu; heiek etsimendua ixuri Maritxu bekatorosari; heiek Santxo Azkarraren eta Santxiaren ezkontza muntatu, erregearen paganotzeko esperantzarekin.(...) Bainan ez dugu deus holakorik ikusi.

Eskutan ginuen programan bazen "Nº18: Satan eta bere adiskideak Santxoz trufatzen dira" Ideia ona zen eta atsegin ginuen behin bederen agertuko zitzaizkula Satanen gaixakeriak eta irri txarrak. Zorigaitzez, justu justua pasarte hori kendu dute, ez baitakigu zertako.

Gisa hortan Satanek ez dute doi doia baizik adi arazi debruak zirela (18).

Hiru urte geroago "*Le Comte de Tréville*"-en ondotik, gauza bera errepikatu zuen (19).

(17) *Gure Herria* 1952, 157 or.

(18) *Herria* 1963/VIII/22.4

(19) *Herria* 1966/VIII/11.1 ala 18?

Ondoko urtean “*Chiquito de Cambo*” eman baitzuten Maulen, “Manex” izengoitiaz izenpetu den artikulua bat berea dela jeltostuak gara eta hor azpimarratua da:

Atseginekin ikusi dugu “debruak” arrapiztu dituztela beren kontseilu txarrekin eta orok hainitz estimatu dituzte bai heien jauntziak, bai heien urrats eta solasak (20).

Baina Santa Garaziren aintzin solasean dio oraino: Azken denbora hauetan Sataneri ez deiete kasik dantza baizik uzten: lehen, parte gehiago hartzen zuten, gaixtoak lagunduz, onez trufatuz. Uste dugu zenbait aldiz, askoren gustuko, ozarkiegi ari zirelako, errientek mututu dituztela. Ez zitzaie gelditzen türk hilen ehortzeko kargua baizik. ez dea gutxiko (21)?

Iparragire ikusi eta aldiz: Plazerrekin ikusi dugu satanak berriz hasi direla mintzatzen, pastoralak zaharretan egiten ohi zen bezela (22).

Beste oharrak

Luzeegi kausitzen zituen beraz pastoralak 20. menderako: goizetik arats, egun osoa irauten zuten! Lafittek erranik edo berak oharturik Xiberotarrek pastoralak erdiratu zituzte. Zaharrak moztu, berriak laburrago egin. 1922ko *Robert le diable* hura bera ikusi zuen laburtua 1976an Garindañen.

Mozketak ez direla nola nahika egin behar. Interes gutiena duten pasarteak kendu, interesanteenak atxikiz. Garindañeko *Robert le Diable*-ri doakionaz, ezkontzarekin bururatu zitekeela, bainan baitezpada behar zela erakutsi kendu zuten beste gertakari bat: erregeren alabak zaldun zuria nor zen ezagutu zuen pasarte (23).

Pastoraletan, gaur egun oraino, errespetatu behar litezkeen oinarritzko lege zenbeit oroit arazten ditu: urdinak eta gorriak elgarren etsai izatea, bien arteko borroka ager dadin. Alderdi bat baizik ez bada edo hiru, ez da gehiago pastoralak.

Behin baino gehiagotan deitoratu du gauza garrantzitsu batzu kendu zituztela, hala nola gero eta gehiago, erdiko aterik ez zela, ate horretarik atera behar luketelarik aita saindu, apezpiku, inperadore, errege eta goi mailako presunek. Edo kontrako atetik ateratzen direla batzu ala besteak (24) “*Arribadak ez direla behar litekeen bezela eginak*” (25).

(20) *Herria* 1967/VIII/24.3

(21) *Santa Garazi* 13 or.

(22) *BMB* 1980, 213 or.

(23) *SSLAB* 1976, 513 or.

(24) *Gure Herria* 1952, 152 or.

(25) *BMB* 1964, 79 or.

Iparragirre pastorealean azpimarratzen du aingeruak ederki eta zintzoki ari izan zirela, ez baitziren beti aingeruño batzu bezala ari denetan, hurbiltzeko-rik ere (26).

Ez bazen ere, lehenago bezela, “zaintzailerik” jendeak ixil arazteko (gaur egun jendeak ixilik egoten dira: laburtzearen ondorioz? mikroei esker ongi entzuten delakotz?) “batalletan” norbeit hiltzen zelarik tiroak botaiak izan baitziren Urdiñarben, gustatu zitzaion (27).

Pastoralei aurkitzen dien beste kalitate handi bat: herri baten batzea. Pastoralari buruz hilabeteak elgarrekin ari dira, beren bertso edo dantzak ikasi, jauntziak josi, publizitatea egin behar dituztenak eta helburu bera gogoan elargarrekin ari direnen artean sortzen da batasun handia.

Hunkigarriak

Pastoraletaz idatzi zuen lehen artikulua hartan ikusi dugu nola garai haie-tako zenbeitek, Jean Etxepare edo Decrept, “*Maitena*” operaren idazlearekin, nahiko zituzten *gure pastoralak erdarazko teatroaren molderat lerra arazi eta bildu. Arrazoina*: Decreptek errana zuen, Maitenarekin erakutsi nahi izan zuela behin betikotz eskuara gai zela gizonaren asmu eta gogoetak oro, alde-z edo moldez azaltzeko (28).

Lafittek batere ez zuen ikusmolde bera: *Zer egin dute bada gure pasto-rala zaharrek? Santa Helenaren berri dakitenetan nork erranen eztela hunki-garri (29)?*

“Hunkigarri” hitz hori bera erabiliko du berrogei urte berantago, Etxahun Irurik idatzi *Santxo Azkarraz: Pastoralak, berriz ere erraiteko, ukan du arra-kasta, eta merezi zuen, hain da ontsa egina eta bururen buru hunkiga-rria (30).*

Musikaren monotonia

Musika aire berriak behar zirela erran du behin baino gehiagotan. Beti aire berak, aspergarri zela entzuleentzat. *Chiquito de Camboz* idazten zuen “*Soinua ona zen: salbu beti aire berak emaiten zituela: esperantxa ginuen kanbiamendu poxi bat izanen zela (31).*

(26) BMB 1980

(27) BMB 1980

(28) *Gure Herria* 1922, 575 or.

(29) *Gure Herria* 1922, 575 or.

(30) *Herria* 1963/VIII/22.4 or.

(31) *Herria* 1967/VIII/24.3 or.

Donibane Lohizunen, Piarres Larzabalek idatzi Lapurtar pastoral bat, *Orreaga*, eman baitzuten 1964an, bost dantza moeta ikusi ziren eta Lafittek goretsi zuen hori, pastorala denbora guzian Xiberotarrek errepikatzen duten gabota bakar hura baino goxoago izan zitzaiola (32).

Aire berriak baziren ba, berriak erran baditake! 1922an Hérellek salatzen digu nondik heldu ziren: kasik beti aire militarrek. Hala nola 1901an *Jean de Calais* eman zutelarik, garai haietan armadan modan ziren aire batzu eman zituzten (33).

Besteak ere ez dira Xiberotarragoak, idazle bera, bai eta Gavel eta Lafitten arabera. Satan-en dantzaren airea “Bon Voyage cher du Mollet” kantua-rena da! (34). Urdinen airea, “Marie trempe ton pain” eta gorriena “Aux champs” (35).

1976an, Garindainen, hamar bat aire desberdin baziren, lehenagoko biz-pahiruen partez (36). Iparragirrekin berriz ere konplimenduak egiten ditu musikaren gatik: dotzena bat airez goiti bazen! Zoritzarrez erritmoak ez zuen aski erakusten noiz zen urdinen aldia, noiz gorriena: urdinak emekiago dabil-tza. Usaian baino aire gehiago izana gatik, musikarien artean lehiaketa bat egi-tea aire berriak asma zitzaaten proposatzen zuen artikulu berean (37). Beti aire berak entzunez, entzuleak aspertzen dira (38).

Jeanne d'Arc pastoralan jadanik, plazerrekin ikusi zuen urrats ttipi bat alde horretara aire desberdin gehiagorekin (39).

Aire berriak izatea, ez aski. Musikariek jakin behar dituzte (40)!

Fantasia eta anakronismo

Luzetasunaz, musikaren monotoniaz, Satanen lizunkeriaz... edo ixiltasu-naz beste kritikarik ere egiten zien pastoralei. Bitxikeriak aurkitzen zizkien.

Behin ikusi izan dugun ‘Abraham’ Aitalehen hura nola jauntzi zuten ezin asma ditake. Karlos VIIgarrena liburuetan den bezala bezala, soineko luze beltz batekin, buruko irringarri bat kaskoaren estalgi. Sara, Abrahamen emaz-tea, azken modako zaietan, parasol pollit bat besotik dilingo... Eta Abraha-

(32) *BMB* 1964, 82

(33) *Gure Herria* 1922, 198 or.

(34) *BMB* 1964, 213 or., *Gure Herria* 1922, 282 or.

(35) *BMB* 1980, 213 or.

(36) *SLAB* 1976, 533 or.

(37) *BMB* 1980, 213 or.

(38) *Gure Herria* 1952, 157 or.

(39) *Gure Herria* 1952, 156 or.

(40) *SLAB* 1976, 535 or.

men ehorzketako "De profundis" hura? ... Holakorik ikusten eta entzuten ahal ditekela! Trufaz ari direla lidurike. Alta, ontsa baino hobeki egiteko nahikun-dea badute, hola ari diren gazte gaiztoek (41).

Mende erdi bat berantago onartzen du fantasia, baina ez, diru eskasez bezela, zaharkeriez egin jauntzirik. 1952an, Maulen *Jeanne d'Arc* eman zutela-rik idatzi zuen jauntziek ez zutela deus historikorik, baina itzalak ziren. Ez zen miseriak inposatu fantasia (42). GH 52/156

Azkenean garbiki onartzen ditu anakronismo eta fantasiak. *Orreaga* ikusi eta idatzi artikuluan irakurtzen dugu: "Anakronizmo pollitez betea da Xiberoko antzerkia. De profundis entzuten da Abrahamen ehorzketetan, Turkoek Mois atakutzen dute, Absalonek pistola eskuan dauka... Baina anakronismoa aurkitzen da dramaturgo hoberenetan: gure irakasleak harrituak ziren ikusten zituztelarik Corneille, Racine edo Victor Hugoren obretan, ez zirelaketz ohartzen zein baliosak ziren gertakarien 'presentzia' eta kasik gaurkotasuna sendi arazteko (43)."

Orreagan Karlomanok bere burua zuritzen zuen "Gernika" sunsiturik, "por Dios y la patria" eta bere nazioa egiteko "una, grande y libre". Horra beste anakronismo bat ongi pasatzen zela baitzioen (44).

1980an eman zuten Urdiñarben, *Iparragirre*, Etxahunen azken pastorala. Moda berriko pastoraletarik beraz. *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian idatzi artikulua batetan bere ikusmoldea ematen du. "Ikusi ditugun pastoraletan hoberenetarik, oso berria eta oso tradizionala (45)."

Hobetuz

Pastoralak gure literaturako adar bat dira. Zer balio aurkitzen zien alde horretarik? "Gehienetan pastorek ez dute literario garbitasun distiratsurik (46)". Beste noizbeit esplikatzen du pastoralen estiloa artifiziala dela, frantsetik hartu hitzak hobesten dituztela, ustez eta horrek kategoria gehiago ematen diola (47).

Baina gauzak aldatu dira. Laudorioak egiten dituen *De Treville* pastoralaz zioen "Beharbada hitz frantses soberaxko erabili dituela erran dute (48)."

(41) *Gure Herria* 1922, 577 or.

(42) *Gure Herria* 1952, 157 or.

(43) *BMB* 1964, 85. or.

(44) *BMB* 1964, 85 or.

(45) *BMB* 1980, 213 or.

(46) *SSLA* 1976, 534 or.

(47) *BMB* 1964, 80 or.

(48) *Herria* 1966, VIII;11

Santa Garaziz aldiz idatzia zuen: “Xiberotar bat gain gainerik landua, oso interesantea literatura, linguistika eta etnologia aldetik (49).”

Iparragirrez, ikusi dituenen hoberenetarik dela. Jokolariak, ongi jauntziak eta ederrak. Mende laurden bat lehenago, Etxahun Barkoxerenzat egin zen bezela, Iparragirren kantuak ematea oso egokia zela. Bai Bedaxagar “sujetaren” abotsa, bai koroaren kalitate handia azpimarratzen ditu (50).

Hérellek baitzioen ainitz eliza kantu bazela (latinez) eta oso guti profano, gaur egun, eliza kantuak ja ja desagertuak dira eta badirelarik euskaraz ematen dituzte. Vatikanoko kontzilioak izan du bere eragina pastoraletan ere (51)!

Hiruetanhogoi urtez ikusi dituen pastoraletan izan da aldaketa garantzitsu bat: emaztek emazteak egitea eta gizonak gizonak. Hura hoin feminista agertua “*Aintzina*” ren garaietan eta hiru lerro baizik ez du horretaz gehiagoko komentariorik gabe: *Berritasun nabariena, emazteen papela emaztek egiten dutela eta ez gizon trabestituak, nahiz bi neskek parte hartu duten satan dantza, dantzariz jauntzirik* (52). Ez ote da laburxko Satanetaz hoinbeste idatzi duen feministarentzat? Gainera, ez zen lehen aldia emazteak ari zirela: Parisko Xiberotarrek eman bi pastoraletan, emaztek zuten emazten papela egiten: *Matalas* (1964) eta *Etxahun Koblakari* (1967) (53).

Jean Louis Barrau famatuaren ikasle izanik, 30 urte hartan bere ofizioz jokolari zen Paristar batek erran zion xoraturik eta mututurik egona zela Iparragirre pastoral horretan: “Gehienik hunki nauena: jokolariek agertzen duten ‘sinestea’, aingeru eta debruen presentzia, itsaso ibilaldiak, gudukak, Zumalakarregiren ehorzketak, ardiak agertzea tranpa gainean, eta bereziki nola txalotzen duten entzuleek, edo berdin txistukatzen, bai eta kantatzen. Herri antzerkiaren bila gabiltza. Bainan hor daukagu (54)!”

* * *

Ezagutzen dugun Lafitterren funtsezko lehen artikulua, pastoraletaz da. Hil arte interesatu zaie pastoralei. Eta hurbiletik. Ikusi ditu eta bere kritikak egin, beren on gaitzak aipatu. Ez liteke harritzeko gaur egun pastoralak izan dituen aldaketak, parte bederen, Piarres Lafitteri zor balizkio, aldaketa horietan parte handi bat aspalditik eta behin baino gehiagotan proposatua baitzuen.

Eta hasieran hirugarren bide bat aipatu bazuen, laster Pastoraletan ikusi zuen gero gure antzerkiaren geroa. Georges Herelle hiltzearekin, idatzi zuen:

(49) *SSLA* 1976, 534 or.

(50) *BMB*, 1980, 213-214 or.

(51) *Gure Herria* 1922, 200. or.

(52) *BMB* 1980, 213 or.

(53) *La Pastorale, Lauburu* 1987, 102 or.

(54) *BMB* 1980, 214 or.

Euskal Berpizkunde batetaz mintzo delarik, gure antzerkia berritzeko, zer gatik ez har oinarritzat Xiberoko tradizioa, gure burua galtzeko partez bereizitasun guti daukaten kopietan (55).

Zer gatik ote liteke horrenbeste interesatu pastoralei, Manex hori? Zer aurkitzen zion bada hoin interesgarririk beti huts eta estakuruak azpimarratzen zizkiolarik? Berezia da. Mendeak dauzkan zeremonia bat bere aspalditik finkatutako errito ezin hunkiekin. Hots erlikia bat eta erlikia bat ez dela gaztetzen (56).

Oharra: Frantsesezko artikuluentzat, guhaurek egin dugu itzulpena euskarara.

BIBLIOGRAFIA

Piarres Lafitte:

- Pastoralak. *Gure Herria*, 1922/574-578.
- Egiazko argia, *Gure Herria* 1927/114-113, 302-309, 494-503.
- Antzerti, 14-15.
- Georges Hérelle. *Gure Herria*, 1935/512-514.
- L'auteur de 'Maitena' est mort. *Gure Herria* 1938/118-120.
- Sarea, Norvègeko kantore xahar bat P. Ithurraldek eskuaraz antolatua ikhusagarri gisa. *Gure Herria* 1950/4-8.
- Arroltzeak. *Gure Herria*. 1951/18-21.
- A propos d'une pastorale: *Jeanne d'Arc*. *Gure Herria* 1952. 155-158 o.
- Orratza. *Gure Herria* 1955/97-115.
- *Santxo Azkarra*. *Herria*, 1963/VIII, 15+22.
- Un essai de pastorale labourdine: *Orreaga*. *Bulletin du Musée Basque* 1964. 76-86.
- Zer pentsatzen dugun ondarreko pastoralaz. *Herria* 1966/VIII.11.1.
- Mauleko pastoralaz. Chiquito de Cambo, gauza eder bat, *Herria*, 1967/VIII.24.3.
- Deux pastorales souletines en 1976. *Société des Sciences, Lettres et Arts*. 1976/533-539.
- Junes Casenave. *Santa Garazi* pastoralara. *Jakin* 1976. Arantzazu. Piarres Lafitte Aintzin solasa (7-18).

(55) *Gure Herria* 1935, 513-514

(56) *SSLA* 1976, 538 or.

- La pastorale *Iparagirre* (Impressions d'un spectateur) *Bulletin du Musée Basque* 1980. 211-214.

Georges Hérelle:

- Les pastorales basques. Georges Hérelle. *Gure Herria* 1921/201.208-308.317.
- La musique et la danse au théâtre basque. *Gure Herria* 1922/190.203 + 280.292.
- Arnaud Agugaray: Pastorales de 1951 à 1980. 93-104 or. In "La Pastorale", *Lauburu*, Baiona 1987.